AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

236

9/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 9koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ander Larrazabal Bilbao jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 8ko 2556/2010 Ebazpenaren bidez (urriaren 27ko EHAA, 207. zenbakia), Ander Larrazabal Bilbao jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerente izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ander Larrazabal Bilbao jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzea, eta egindako zerbitzuengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2014ko urtarrilaren 10etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri interesdunari, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.